

Bazterketarik ez!

Agata: Ez zara zure lagunekin, Sara?

Sara: Ez, ez dute enekin mintzatu nahi!

Agata: Baina, zergatik? Zerbait gaizki egin diezu?

Sara: Ez, baina denek erraten dute **OHOINA** naizela.

Agata: A bai? Eta zer ebatsi duzu?

Sara: Deus, baina ene gelako Elisa frikun horrengatik da. Norbaitek bere zorroa hartu dio, eta nola ez garen elkarrekin ongi moldatzen, **denek uste dute nik ebatsi diodala!**

Agata: Zer, zure lagunek ere?

Sara: Haiek, pentsatzen dut ene baitan konfiantza badutela, baina nola besteek erraten dieten ohoin baten lagunak direla, ez dira menturatzen enekin egotera...

Agata: Okaztagarri da! Baldin badakite ez duzula deus ebatsi, zure **DEFENTSA** hartu behar lukete, zure gisa uzteko partez!!!

Sara: Gainera, segur naiz Elisarengatik dela. Beti uste du haren puskez jelos naizela, eta ez da batere egia!

Agata: Badakizu zer? Elisaren zorroa nork ebatsi duen jakiten lagunduko zaitut, eta horrela denek jakinen dute ez duzula zuk egin!

Sara: Gisakoa zara, Agata, baina ez baldin badugu aurkitzen?

Agata: Ez baldin badugu aurkitzen, **uste dut zure irakasleari aipatu beharko diozula.** Segur naiz hark jakinen duela zer egin besteek ez gehiago zozokeria horiek sinesteko! Eta anartean, aski duzu enekin egotea, bakarrik ibiltzeko partez...

Sara: **Milesker, Agata! Zu zinez ene adiskidea zara!!!**

Itzulpena: Maialen Bidegain

